

Olarizuko txosna

Hirugarrenean zorte ona izaten omen da, eta halaxe izan da. Aldi edo ziklo berri honetan, hirugarrenean ez du euririk egin; aurreko ostegunetik aurreikuspen guztiek eguna ateri izango genuela adierazten zuen, zorionez.

Eta halaxe izan zen, nahiz eta bizi izan dugun udara xelebrea ikusita, edozer gerta zitekeen; baina ez. Irailaren 10a, astelehena, lanbro apur batekin hasi zen, baina goizeko hodeiak eguerdirako joanak ziren eta giro eguzkitsua aizan genuen arratsalde osoan. Bero gehiegi egin ez bazuen ere, jende asko hurbildu zen Olarizuko zelaietara.

Urte ona izan da, euro-hipotekaren eta halako kontuen eragina sumatu genuen arren, izan ere, gaur egun jendeak ez du txosnaz txosna pasatzen arratsalde osoa, lehen bezala. Gaur egun, eguerdiko babarrun jana dela, arratsaldeko txahala dela eta taloak direla, Txosnen salmentek behera egin dute, halako moldez non Penalty tabernak berak ere (Olarizuko klasikoetan klasikoena), aurten Olarizuko bere tokia bete gabe utzi duen ...

Lan ona egin ahal izan genuen, batez ere Txosnan izan edo bertatik pasatu ahal izan ziren bazkideei esker. Atera ahal izan ditugun etekinak penyaren mesederako izango dira ezberrik gabe.

2008 urterako berriz ere ikusi egin beharko, baina, egoera ikusita, argi dago eguraldi ona ziurtaturik ez baldin badago, hobe dela olanak penyari lagatzea eta pagotxa talogileentzat izan dadin uztea...

Esan bezala, eskerrik asko Olarizura bildu ohi direnei.

Gabonetako Loteria, Egutegiak eta orri markagailuak

Urriaren 10ean hasiko gara banatzen Gabonetako Loteria penyako kideen artean. Era berean, egutegiak eta orri markagailuak prest egotea espero dugu, eskura izan ditzazuen.

Gogora ezazue oso garrantzitsua dela bazkide bakoitzak taloitegi bat (50 partizipazio) saltzen laguntzea, eta bi baldin badira hobeto... Eta iaz zorte ona izan genuenez, aurtengoa behintzat iazkoa bezain ona izatea nahi genuke, hau da, ea gutxienez lehengo Gabonak pixka bat erraztu zizkigun sari txiki hori suertatzen zaigun.

Taloitegiak asteazken arratsaldeetan eta partida dagoen egunetan jaso daitezke.



“La Masia”, izarren sorlekua

Orain dela zenbait urte Ronaldinho eta Eto'o jokalarien eskutik piztu zitzaigun itxaropena, eta horiei esker Europako beste Kopa bat irabaztearekin egin genuen amets, urte batzuk geroago Parisetik ekarri zigutena.

Baina, dirudienez, etxean geneuzkanak besteak bezain onak edo are hobeak dira. Hortxe daukagu Leo Messi zoragarri bat, bi urtetan gorenko mailara heldu dena eta GOL BIKAINAK egiten ari dena, gainera etorkizun blaugrana eztabaidaezina duena. Alabaina, Giovanni eta Bojan atzetik bultzaka datoz, eta 17-18 urte dituztela geure Barçaren errealitate eztabaidaezinak dira gaur egun.

Taldeak hasiera makal samarra izan badu ere, 15 egunetan denok nahi genuen eta duela 2 urte bizitzen hasi ginen errealitatera ekarri gaituzte. Marrazki bizidunetako talde honek, pertsonaia zenbait aldatu dituen arren, lehen bezain dibertigarria izaten jarraitzen du, itxuraz.

Beharbada ez hain urrutira joan beharrik izango Europako futbolaren talderik onenak, non eta aurki eraberrituko duten Camp Nou zelaian. Ez alferrik 50 urte igaro dira zabaldu zutenetik eta merezia du itxura-berritze bat, tarteka bisitatzen dugun guztioi erakargarria suerta dakigun.

Besterik gabe, denoi urriaren 10ean (asteazkena) Penyan biltzeko deia egin nahi dizuet. Egun garrantzitsua izango da eta. Egun horretarako hainbat ekitaldi antolatu ditugu, eta azkenean Jose Alcaleri, EUSKOBARÇA Penyaren ohorezko presidenteari, ondo merezitako omenaldia eskainiko diogu. Hortaz, polita litzateke zeu ere omenaldi honetara etorriko bazina. Berak ere esker ona adieraziko dizu, zalantzarik gabe.

Urriaren 10a, asteazkena, EGUN HANDIA ...

Egun bakar bat gehiago pasatzen utzi gabe, urriaren 10ean, asteazkena, penyarentzat egun berezia izatea nahi genuke. Izan ere, asko daukagu ospatzeko egun horretan...

Orain dela zenbait hilabete Lluís Carrerasen aldeko Ekitaldia antolatu genuen bezalaxe, azken Bazkide Batzar nagusian aho batez hartutako erabakia gauzatuko dugu egun horretan: Jose Alcalde gure Penyaren Ohorezko Presidente izendatzeko ekitaldia burutuko dugu, eta horretarako eguna nabarmenago egiteko, Penya guztia dotore-dotore jartzeko egitarau baten barruan kokatuko dugu.

Era berean, Penyaren artean jokaturako aurreko 7ko FUTBOL TXAPELKETAN ordezkatu gintuzten mutilei omenaldia eskaintzeko aprobetxatuko dugu eguna, bertan oso maila ona eman baitzuten eta final handiaren atarian geratzea lortu baitzuten.

Honako hauxe izango da Egitarua:

20:00etan: 7ko Futboleko Aranbizkarra taldeak Bartzelonako Penyaren arteko II. Txapelketan izandako partehartzeari buruzko emanaldia eta solasaldia.

20:15ean: Euskobarça penyaren Inauterietarako Konpartsaren aurkezpena.

20:30ean: Barçaren orainari buruzko Hitzaldi-solasaldia, Dani Benavidesen eskutik (Onda Cero irratiako ohiko esataria y gure penyako bazkide ohia).

21:00etan: Jose Alcalderi omenaldia eta bera EUSKOBARÇA Vitoria-Gasteizko Penya Bartzelonistaren ohorezko Presidente izendatzeko izendapen ofiziala.

21:10ean: OTORDUA bertaratzen diren guztientzat.

(Egitarau hau aldatu ahal izango da, jardunaldiaren antolamenduak eskatzen badu.)

Hori dela eta, lehenik eta behin, Jose Alcalderen omenezko ekitaldi honetara etortzeko eskatu nahi dugu; gure Penyarentzat egun garrantzitsua eta ahaztezina izango den horretan, denok batera eskertu ahal izango dizkiogu penyari eman dizkion urte hauek guztiak. Orain penyari dagokio Jose Alcalderi itzultzea berak eman digunaren zati txiki bat besterik ez bada

Era berean, Bartzelonan gure izenaren pean lehiatu ziren mutilei babes eman diegu; ia-ia finalera iritsi ziren gainera. Aitortzekoa da benetan bai haiek, bai euren senideek egin zuten ahalegin handia (sortutako gastuei aurre egitea eta arlo pertsonalean egindakoa, abuztuan guraso batzuk oporretan baitzeuden).

Lehiaketa eta bizikidetzaz uztartu zireneko 3 egun bizi-bizi eman zituzten, eta amaiera gisa Joan Gamper Torneoan esku hartu zuten, gure NICOLAU CASAUS handia eta Antonio Puerta gogoan. Era berean Camp Nou barrutik ikusi eta Museoaz gozatzeko aukera izan zuten.



Gainera Hitzaldi-solasaldi bat antolatuko da, hedabideetan aritzen den eta gure Penyarekin harremana duen pertsona baten esku-hartzearekin. Izan ere, Dani Benavides, ONDA CERO irratiako kirol esataria, gure penyarekin batera izan zen Bartzelonan guk egin genituen hasierako bidaietan., Penyaren egoitzan Pilar auzoko jaiak zirela eta antolatu genuen TRIVIAL BARÇA txapelketa batean irabazitako lehen sariari esker. Haur mailan irabazi zuen, eta ordurako zaletasuna eta trebezia erakusten zituen.

Gaur egun ONDA CERO irratiaren aritzen da Arabarako programazioan kirol mota guztiak komentatuz eta baita ONDA CERO irrati sarean Estatu osorako; bertan NAZIOARTEKO FUTBOLaren inguruan aritzen da, "Maldinik" Cadena Ser irratiaren jarduten duen bezala.


Beraz, abagune egokia izango da Barçaren azken mugimendu taktikoak azaldu diezazkigun eta, nola ez, 2007/2008 denboraldian Estatu eta nazioarteko futbolaren gailurrera eramango gaituen formula magikoa bilatuko du...

ZUEN ZAIN GAUDE; esan bezala EGUN HANDIA izango da....

Nicolau Casaus IN MEMORIAM

Gutako askok bagenekien azken urteotan, berak laurogeita hamarretik gora zeukala, bere bizitzaren tarte zail batean zegoela. Halako berriak inoiz ez dira onak izaten, eta hala, abuztuan, ia zaratarik egin izan ez balu bezala, utzi gintuen gure Nicolauk, halakoa baitzen bera, Camp Nouko tribunari gorenera heltzeko.

Berarekin 3 aldiz ere solasteko aukera izan genuen. Horietako bat KLUBaren mendeurrena ospatzen ari ginela izan zen, eta 2 egunetan saskibalo ligaren Penyan eta futbolekoa Mendizorrotzan bizi ahal izan zituen. 1999ko maiatza zen, gertakari harekin hura bizi ahal izan genuenean.



Izan ere, Futbolaren munduko presidenteorderik ospetsuena izan zen, eta maitatuena penyetako bazkide guztien artean. Hain zen maitakorra, eskuzabala eta adeitsua unibertso kolore guztiekiko, non futbolarekin zerikusia duten guzti-guztien begirunea irabazi zuen. Maradona ekarri zigunari eta Barçan izandako jokalaririk gehienek aitatzat izan dutenari begirune handia zor diogu Euskobarçako bazkide guztiok eta batik bat gure Penyak, ederki irabazita baitauka.

Denek entzun nahi izaten zituzten haren hitzaldiak, beti bezain zirraragarriak eta haren puruak bezala berarengan hain ohikoak zirenak.

Gure penyak, Irun eta Altzakoekin batera, egoki ikusi zuen bere azken agurraren uneetan berarekin izatea eta hark EUSKAL HERRIRA egindako bisitaldietan eman zigunaren apur bat itzultzea, lore sorta bidaliz.

Bera gogoan dugula, izango ahal du Nicolau Casaus gure adiskideak beti aldarrikatzen zuen bakea.

Eskerrik asko, Nicolau. Goian bego.

Barça – R. Madrid partidarako sarrerak (abenduko 22 eta 23an)

Aurten arinago ibili gara eta BARÇA-R. MADRID klasikorako 4 sarrera ditugu eskura. Gol zonaldeko 3. harmailadikoak dira (80 eurokoak).

Aurrekoen aldean abantaila nabarmena dugu orain, sarrerak berton dauzkagu eta; orain arte normalean zalantza ugari izan dugu emango ziguten sarrera kopuruaren inguruan, hotelaren eta bidaiaren antolatzeke...; orain ez dago arazorik eta nahi duenak partidu bikain honetara joatea serio pentsa dezake.

Urriaren 31ra bitarteko eskaerak hartuko dira kontuan, eta, zer esanik ez, bazkideek lehentasuna izango dute. Bakarren bat soberan geratuko balitz, bazkideen lagunei ere zabalduko litzaieke aukera.

Beraz, interesa baldin baduzu, jar zaitetz lehenbailehen Gorkarekin telefonoz (670-348387) edo posta elektronikoaz (biderik onena): penya@euskobarca.com.

XV. urteurreneko aldizkaria

Ordenagailurik eza dela eta, badirudi oraindik batzuek ez dutela irakurtzerik izan Penyako bazkide guztiei formatu digitalean helarazi zitzaizen aldizkaria. Penyaren egoitzan paperezko 2 ale daude eskura, denek irakurri ahal izan ditzaten.

Zenbaitek ale batzuk paperezko euskarrian argitaratzea ere proposatu dute, hartara nahi duenak bere etxean eduki ahal izango luke. Horregatik, zerrenda bat prestatuko da ale guztiak batera ateratzeko eta ahalik eta merkeen suerta daitezen; hala ere, orri guztiak koloretan daudenez, ez dugu uste ale bakoitza 8 eurotik behera jaitziko denik.

Beste aukera bat, merkeagoa, etxean bertan inprimatzea eta gero YARGA fotokopia dendara eramatea da. Bertan Benitok, Penyako bazkidea berau, egiten du lan, eta berak koadernatu eta azala ere jarriko dio. 5 euro kostako da eta emaitza profesionala da.

Nolanahi ere, hamabost urte hauetako ibilbideak gaztetuko ahal izan zuten bat baino gehiago eta balioko ahal izan zuten geure blaugrana sentimendua sendotzeko eta areagotzeko.

2008ko INAUTERIAK

Aurtengo gure ERRONKA nagusia izango da.

Inauteriak direla eta, otsaileko bazkide batzarrean jakinarazi zen gure Penyak Gasteizko jai horietan parte hartuko duela. Beste edozein KONPARTSA arruntan modura esku hartuko dugu. Iaz 13 edo 14 atera ziren, eta datorrenean, 2008an, 15 izango dira, tartean EUSKOBARÇA.

Irailaren 18an bildu ginen lehen aldiz udaletxean beste konpartsekin eta ondoren Udaleko Kultura zinegotziarekin berarekin; bertan Inauteriei begira dugun asmoa aurkeztu genuen.

Gure estreinaldirako aukeratu dugun gaia BARBAROAK izango da.(historian atzera eginez V. mendera arte helduko gara, leinu horiek Europa osoa izutu zuten garaira, alegia).

Zorionez, beste talde bat zango dugu bidelagun (Laguntasuna elkarte); berak giza baliabideak eskainiko ditu datorren otsailaren 2an eta 3an Gasteizko kaleetan Karroza duina izan dezagun.

Orain, ordea, jendea bereganatzea baino ez da falta. Hasierako eta oraingo asmoa penyako kideei, senitartekoei eta lagunei "bestelako" ekintzak eskaintzea izan da, jaietz gozatu ahal izateko eta kirola alde batera utzi ahal izateko. Horregatik, lehenengo deia geure penyako kide, senide eta lagunarteari egiten diegu, eta Euskobarçarekin INAUTERI BARBAROAK igarotzera gonbidatzen ditugu.

Konpartsetan 35 eta 40 euro bitarteko kuota izaten dute; hori dela eta, gureak aurtan 35 euroko kuota izango du helduentzat eta 30koa haurrentzat (12, 9 eta 5 neurriak). Prezioan mozorroa eta segizioan parte hartzeko eskubidea daude sartuta; bertan ezusteko atseginak edukiko ditugu, izan ere, SPORT egunkariaren laguntza izatea espero dugu, partehartzaile guztiak material poltsa bana jaso dezaten opari. Igande goizean, halaber, gosari xumea egingo da, goizeko desfilearen aurretik indarrak biltzeko.

Esan bezala, bi egun horietan ondo pasatu nahi duen jendea behar da; etorri andrearekin, seme-alabekin eta euren lagunekin, lagunartekoekin, etab.. Konpartsa batean sartzeko aukera emaiizu eta ez zaio damutuko; Inauteri desberdinak igaroko dituzu, ziur.

Epeak oso zehatzak dira, beraz zorrotz bete behar dira, baina hori besterik ez da; ondo gogoan izan datak, inori ez ahazteko.

Nolanahi ere, urriaren 10ean, asteazkena, jaietarako ekimen berri honen aurkezpena egingo da.

- Urriaren 10a, asteazkena, 20:15ean: Konpartsaren aurkezpena.

- Urriaren 15etik (astelehena) 26ra (ostirala): Izen-emateak Penyan, 19:00etatik 20:30era. Aukeratutako jantziak egongo dira bertan, probatu ahal izateko (neurrien kontuengatik eta).

- URRIAREN 26a, OSTIRALA: Konpartsarako izena emateko epearen bukaera.

Udalak agintzen duenez, egun horretarako KONPARTSAN aterako diren pertsonen izen zerrenda aurkeztu beharko dugu, desfileetarako baimenak direla eta. Hori dela eta, hobe duzu izena lehenbailehen ematea, toki kopurua mugatua da eta; konpartsa bakoitzari kopuru jakin batzuk dagozkio eta hau gure lehen urtea denez...

Prestatzeko saiok larunbat eta igandeetan egingo dira, den-denak "profesionalen" pare geratzeko.

Gasteizko gizarte osoarengana ere joko dugu, izan ere, bai Pilar auzoko jendea, bai gainerako auzoetakoa bereganatuko dugu, baina beti ere lehentasuna emango zaie panyako kideei eta euren sendi nahiz lagunarteari.

Horregatik eskatzen dizuegu ekimen honen berri emateko, bati baino gehiagori gustatuko zaio eta; eta ez ahaztu urriaren 26tik aurrera EZINEZKOA IZANGO DELA bertan IZENA EMATEA.

Ea bada, ez galdu ez zuek ez zuen lagun guztiak INAUTERIEN JAIAN sartzeko aukera hau. Ez zaizue damutuko!

Informazio zabalagoa eskuratzeko, sar zaitetz penyaren webgunean: www.euskobarca.com

Hiru hizkuntzako informazio aldizkaria

Ale batzuetatik hona, Internet daukatenean aldizkari hau 3 hizkuntzatan irakurtzeko aukera daukate (Gaztelania, Euskara eta Katalana). Gure penyako bazkide eta "hizkuntz kontuetarako" zuzendaritza batzordeko kidea den Pello Ramirezek egiten du itzulpen lan neketsu hau, Katalunia aldean nahiko oihartzun handia izan duena: bai Sport, bai Mundo Deportivo egunkarietan horren berri eman dute.

Era berean, Pellori esker, euskaratu egin dugu Barçaren Himnoa, Pellok berak Antoni Rovira Barçako zuzendaritzako kideari hitzeman zion bezalaxe. Jadanik eginda dago itzulpena. Are gehiago aurtan egutegi batek gai hau islatuko du. Espero dezagun aurrerantzean "cule"entzat halako albiste onak sortzen jarraitzea.